



ONDARROAKO UDALA



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: ohiko udalbatzarra
Eguna: 2019.04.25
Ordua: 19:05-19:45
Tokia: Kofradixako batzar areto nagusia
Bertaratuak:

- Alkatea: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA (BILDU)
- ENERITZ BASURKO PAGOAGA (BILDU)
- IDURRE IBAZETA LERTXUNDI (BILDU)
- RAKEL ELU BENGOETXEA (BILDU)
- VISIT BEIRO BADIOLA (BILDU)
- UNAI BARRENETXEA GURRUTXAGA (BILDU)
- MARIA DOLORES ETXANO VARELA (EAJ)
- ADRIAN OSA IBARLOZA (EAJ)
- AGURTZANE IRIONDO LEJARDI (EAJ)
- GORKA BADIOLA ETXABURU (EAJ)
- MIREN AGURTZANE URRESTI AZPIRI (EAJ)

Ez bertaratuak:

- IÑAKI LERSUNDI ARRIZABALAGA (BILDU)
- LEIRE BEITIA ANABITARTE (BILDU)

Jarduneko Idazkaria: GORKA LAUZIRIKA URBERUAGA

Jarraian, Alkateak, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma ba dagoela egiaztatu du, eta batzordea eratutzat jo da.

Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.



ONDARROAKO UDALA



1. AURREKO AKTEN ONESPENA, EGOKI BALITZ (2019.03.28)

Alkateak galdetu du ea batzordekideren batek aktaren testuei buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du. Inork ez duenez adierazi, bozketa egin da, eta aho batez onartu da akta.

2. ALKATETZA DEKRETUEN KONTU EMANA (2018/1372-1383; 2019/0299 Dekretua)

Alkate jaunak hitza hartu du azaltzeko sinatutako dekretuen berri ematen dela. Galderarik egon ez denez, Udalbatzak sinatutako dekretuen jakinaren gainean geratzen da.

3. 2019/0400 DEKRETUA BERRONESTEA. GAIA: KAMIÑALDEKO MENDI MAGALAREN SENDOTZEAREN EGONKORTZE, DRENATZE ETA INGURUMENEO LEHENERATZE LANAK. EPEA LUZATZEA.

Alkatetzak apirilaren 12an, ondorengo erabakia hartu zuen:

DEKRETUA 2019/0400

Esped. Zkia.: O/1331

Gaia: Obra-kontratua. Kamiñaldeko mendi magalaren sendotzearen egonkortze, drenatze eta ingurumeneko leheneratze lanak. Epea luzatzea.

UTE Kamiñalderen izenean Julen Gil Zaldívarrek 2019ko apirilaren 11n Udal erregistro orokorrean 1107 zenbakidun idatzia aurkeztu du gai honi buruzko obrak egiteko epearen lau asteko luzapena (hilabete bat) eskatuz.

Udal arkitektoa den Mikel Inchaurre Ocerinjaureguik Obren Zuzendaritzako arduraduna den Sestra Ingenieria y Arquitectura, SLko Josu Agirrezabalagari eskabide honen onarpen-txostena eskatu dio.

Eskatutako onarpen-txostena aurkeztuta udal arkitektoak oniritzia eman dio.

Sestra Ingenieria y Arquitectura, SLko Josu Agirrezabalagak eta Udal arkitektoak 2019ko apirilaren 12an sinatutako txostena eta aurreko guztia kontutan hartuta hauxe erabaki dut:

Lehena.- Kamiñaldeko mendi magalaren sendotzearen egonkortze, drenatze eta ingurumeneko leheneratze lanak amaitzeko epearen lau asteko luzapena (hilabete bat) onartzea, hau da, epea 2019ko maiatzaren 22an amaituko da; izan ere, aipatutako txostenean agertzen den bezala atzerapen horren arrazoiak ezin baitzaizkio egotzi UTE Kamiñalderi.

Bigarrena.- Espediente honetako kontratazio-organoa Udalbatza denez, organo horri jakinaraztea, hurrengo bilkuran luzapen honen erabaki hau berronetsi dezan.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri UTE Kamiñalderi, Sestra Ingenieria y Arquitectura, SLri, Ingek Ingenieria Geologica y Geotecnia, SLPri, Neurtu TZ, SLri, Ekolur Asesoría Ambiental, SLLri, Carlos Suengas Goenecheari, Udal kontuhartzaileari eta Udal arkitektoari ematea.



ONDARROAKO UDALA



Ondarroa, 2019ko apirilaren 12an

Alkatea.- Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga

Erabakia: Kontuan izanda espediente honetako kontratazio-organoa Udalbatza dela, organo honi dagokio erabaki hartzea edo Alkatearen Dekretua berronestea. Horri horrela izanik, Udalbatza Osoak, aho batez, erabaki hau hartu du:

Lehenak: Alkatetzaren 2019ko apirilaren 12ko 2019/0400 Dekretua berronestea, non *Kamiñaldeko mendi magalaren sendotzearen egonkortze, drenatze eta ingurumeneko leheneratze lanen* exekuzio epea luzatzen da 2019ko maiatzaren 22rarte.

Bigarrena: Erabaki honen berri Udal kontuhartzaileari eta Udal arkitektoari ematea.

Esanak: Maria Dolores Extano andreak esaten du, erabaki hau eta gai ordenatik kanpoko erabakia (Kamiñaldeko obra) hirigintzako gaiak direnez, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Batzorde informatzailetik pasar behar zirela, erabaki hartu orduko, bere diktamena emateko. Eneritz Basurko andreak esten du arrazoia duela eta bere asmoa hori zela baina Aste Santua tartean egonda, ezinezkoa izan dela, baina berirro ez dela gertatuko.

4. 2019KO MAIATZAREN 26KO EUROPAKO PARLAMENTURAKO, UDALETARAKO ETA BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDETARAKO MAHIKIDEN ZOZKETA

2019ko maiatzaren 26ko Europako Parlamenturako, Udaletarako eta Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeak direla eta, mahai elektoraleko kideak izendatzeko zozketa egiten da Conoce programaren bitartez, emaitzak ikusita aho batez onartu da;

Lehenak: maiatzaren 26an Europako Parlamenturako, Udaletarako eta Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundetarako mahai elektoralen kideak izendatzeko egindako zozketa onartu. Eransten da.

Bigarrena: Mahakideei jakinaraztea.

GAI ORDENATIK KANPO: KAMIÑALDEKO MAGALAREN SENDOTZEAREN EGONKORTZE, DRENATZE ETA INGURUMENEO LEHENERATZE LAN"-ETAKO -AURREIKUSI GABEKO LANAK-

Udal arkitektuak ondorengo txostena egin du:

Eguna: 2019-04-25

Esp.zkia: O/1331 Gaia: "Kamiñaldeko magalaren sendotzearen egonkortze, drenatze eta ingurumeneko leheneratze lan"-etako -aurreikusi gabeko lanak-

TXOSTENA



ONDARROAKO UDALA



"Kamiñaldeko magalaren sendotzearen egonkortze, drenatze eta ingurumeneko leheneratze lan"-etan, Kamiñalde kalearen hasieran habe eta zutabez osaturiko hormigoi armatuzko erretikula bat eraiki da ezpondari atxikita. Lanen egikaritzapen prozesuan, gainazala porotsu geratu da eta horrek iraunkortasunean eragina izan dezake. Hori dela eta, iraunkortasuna bermatze aldera, azaleko tratamendu bat proposatzen da erretikulan, poroak ezabatuaz eta hormigoia babestuz.

Proposatutako lanen kostua 41.805,62€-tan (BEZ gabe) baloratua dago. Kontutan hartuta fase honetako lanen lizitazioa 2.073.217,36€-tan (BEZ gabe) esleitu zela, -aurreikusi gabeko lanak- lizitazioaren %2,02koa suposatzen dute. Horrela ba, -aurreikusi gabeko lan- hauek horretarako aurreikusitako 10%eko mugaren azpitik daude.

Idatzi honekin batera eta goian aipatzen den gaiari jarraituz, obren zuzendaritza daraman SESTRA Ingeniería y Arquitectura S.L.-ek egindako txostena eranstean da. Txosten horretan tratamenduaren beharrezakoa azaltzen da alde batetik eta bestetik kostuak baloratzen dira.

Aurreko guztiaren ondorioz, hurrengoak proposatzen dut;

- SESTRA Ingeniería y Arquitectura S.L.-k egindako txostena ontzat ematea
- Proposatutako eta aurreikusi gabeko tratamendua ematea erretikulari, eta horrek dakarren lanen kostua ontzat ematea.

Hala jasota ager dadin, honako txosten hau ematen dut Ondarroan, 2019ko apirilaren 25an.

Udal Arkitektoa, Mikel Inchaurre Ocerinjauregui

Eransten da Josu Arrizabalaga Iparragirre, obra zuzendariak 2019ko apirilaren 24ko datarekin eginiko txostena, izenburu honekin: "Estabilización de la ladera de Kamiñalde en Ondarroa. Necesidade de tartamamiento de la estructura de contención del talud de la calle Kamiñalde"

Eranten da ere, GEOTUNEL SL enpresaren eskaintza:

Asunto: "OFERTA DE EJECUCIÓN DE LOS TRABAJOS DE LUCIDO DE CONTRAFUERTES EN LA LADERA DE KAMIÑALDE, ONDARROA (BIZKAIA)"

Por la presente adjuntamos oferta solicitada.

PROCEDIMIENTO DE TRABAJO

1. Lavado de toda la superficie a tratar mediante agua a presión, 500 bares y boquilla rotativa, con el fin de abrir el poro del hormigón para que los posteriores materiales a aplicar tengan buena adherencia.
2. Aplicación de una capa de mortero clase R3 tipo MASTEREMACO S5300 de la firma Basf eliminando todas las oquedades que presenta la superficie.
3. Aplicación de una o dos capas (según acabado) de mortero impermeable y sulforresistente tipo MASTERSEAL 531 de la firma Basf, dejando un acabado talochado a buena vista.

PRECIOS UNITARIOS:



ONDARROAKO UDALA

P.A. POR MONTAJE DE UN EQUIPO EN OBRA600,00 €.
M2 DE TRATAMIENTO 73,86 €. *Incluyendo medios auxiliares,*

Kontuan hartuta, proposatutako lanen kostua 41.805,62€-tan (BEZ gabe) baloratua dago. Kontutan hartuta fase honetako lanen lizitazioa 2.073.217,36€-tan (BEZ gabe) esleitu zela, -aurreikusi gabeko lanak- lizitazioaren %2,02koa suposatzen dute. Horrela ba, -aurreikusi gabeko lan- hauek horretarako aurreikusitako 10%eko mugaren azpitik daude.

Kontuan hartuta SESTRA Ingeniería y Arquitectura S.L-k egindako txostena ontzat ematen, eta udal arkitektuaren txostena proposatutako eta aurreikusi gabeko tratamendua ematea erretikulari, eta horrek dakarren lanen kostua ontzat ematen.

Kontuan hartuta espediente honetako kontratazio-organoa Udalbatza dela, aho batez, erabaki hau hartu du:

1.- **KAMIÑALDEKO MAGALAREN SENDOTZEAREN EGONKORTZE, DRENATZE ETA INGURUMENEN LEHENERATZE LAN"-etako -aurreikusi gabeko lanak onartzea**, hain zuzen ere, **GEOTUNEL SL enpresaren EJECUCIÓN DE LOS TRABAJOS DE LUCIDO DE CONTRAFUERTES EN LA LADERA DE KAMIÑALDE** izeneko proposamenaren arabera, exekuzio baldintzak eta burutzeko epea, guztirako gastua izanik 41.805,62€-tan, gehi BEZ (8.779,18 €), guztira 50.584,80 €.

2.- Esleipen hori kontratazio-organo honen kontratatzailearen profilean argitaratzea, txosten teknikoekin batera.

3.- Kontratua formalizatu behar da zazpi baliodun egunetako epearen barrua. Kontratuaren formalizazioa burutu aurretik Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea, hau da 2.090,28 € (41.805,62€-tan esleipen prezioaren %5, BEZ gabe)

4.- Erabaki honen berri udal arkitektu eta kontuhartzaileei eta interesdunei ematea.

5. ESKARI GALDERAK

Ez daude.

Eta beste gairik ez denez egon osoko bilkura alkateak amaitutzat eman du batzarra eta jarduneko idazkaria naizenez, alkatearen oniritziarekin, bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut.

JARDUNEKO IDAZKARIA

